

asajer-k idatzia

Osteguna, 2018(e)ko azaroa(r)en 29-(e)an 17:42etan - Azken eguneratzea Ostirala, 2018(e)ko azaroa(r)en 30-(e)an 11:57etan



Errehabilitazioan Diren Arabako Jokalarien Elkarteak (ASAJER) irabazi-asmorik gabeko elkarteak dira, eta 1989an sortu zen zorizko jokoen mendeko pertsonen laguntzeko helburuz. Gaur egun, jarduketaren eremua handitu egin da, eta elkarteak lan egiten du hainbat pertsonari laguntzeko, zenbait jokabide (zorizko jokoa eta apustuak, erosketak, teknologiak –hala nola telefono mugikorra, bideojokoa...–) eragindako kontrolik ezarengatik laguntza eskatzen dutenentzat.

Elkartean parte hartzen dute psikologiako eta gizarte-langintzako profesionalak, jokabide-mendekotasunak tratatzen esperientzia handia dutenak; bai eta arazoa gainditu duten pertsonen edo berreskuratze-prozesuan daudenak, familiako kideak eta boluntarioak.

Helburuak

- Zorizko jokoen edo apustuen mendekotasuna zein bestelako jokabide-mendekotasunak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) erabilera desegokia saihestea, oro har biztanleria osoari eta arrisku-talderi (emakumeak, adingabeak...) begira.
- Laguntza-jarduketak egitea zorizko jokoen edo apustuen mendekotasunen eremuan, zein jokabide-mendekotasunen eta IKTen erabilera desegokiaren eremuetan, kontuan hartuta horietatik erator litezkeen ondorio guztiak (psikologikoak, sozialak...), banakako, familiako, eskolako, gizarteko eta abarreko esparruei dagokienez.
- Análisiak eta azterketak egitea zorizko jokoen edo apustuen erabilerari, bestelako jokabideei eta IKTei buruz, ahalik eta daturik eguneratuenak esku izateko helburuz.

Jarduerak eta Zerbitzuak

- Telefono bidezko arreta eta arreta pertsonala.
- Laguntza-taldeak zorizko jokoen edo apustuen mendekotasunentzat zein bestelako

2018 ASAJER LIBURUXKA OROKORRA

asajer-k idatzia

Osteguna, 2018(e)ko azaroa(r)en 29-(e)an 17:42etan - Azken eguneratzea Ostirala, 2018(e)ko azaroa(r)en 30-(e)an 11:57etan

jokabide-mendekotasunek jotako pertsonentzat.

- Laguntza-taldeak jokabide-mendekotasunek jotako pertsonen familiako kideentzat.
- Banakako terapia, familia-terapia, bikoteterapia.. pertsona kaltetuentzat eta beren ingurukoentzat.
- Prebentzio-, informazio- eta sentsibilizaziojarduerak biztanleentzat oro har eta eskatzen duten kolektiboentzat.
- Prebentzio-kanpainak biztanle-sektore kalteberenentzat: emakumeak, nerabeak eta gazteak, immigranteak...
- BEGIRADA programa. Gizarte-arreta eta ludopatia detektatzea landa-eremuan.
- OHARTU programa. Gizarte-arreta eta ludopatia detektatzea Vitoria-Gasteizen.
- ONLINE ZUREKIN aholkularitza-zerbitzua biztanle gazteentzat.

Errehabilitazioan diren Arabako Jokalarien Elkarte (ASAJER)

Araba Jenerala kalea, 25 - 1. sol. esk. 01005 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 140 468 / 945 234 990

e-posta: asajer@telefonica.net

www.asajer.org

- [2018 ASAJER LIBURUXKA DESKARGA \(PDF\)](#)